

## JOSÉ LAINEZ ETA CONCHA MARTÍNEZ

José Lainezek eta Concha Martínezek sartu dute dantza garaikidea Espainian. Aitzindari gisa, haien ikuspegi artistikoa harreman esperimentalean eta gorputza eta espazioaren arteko harreman zirikatzailean oinarritzen da, eta dantza garaikideko dantzari eta sortzaile asko inspiratu ditu.

16 urte zituztela, José Lainez eta Concha Martínez Donostiatik Amsterdamera joan ziren, eta, han, bost urte igaro zituzten Het Nationale Ballet konpainian dantzan. Itzulitakoan, Anexa sortu zuten (Donostia, 1970), dantza garaikideko lehen taldea, eta taldearekin proposamen artistiko berria erakustea lortu zuten; hots, proposamen apurtzailea, probokatzailea eta abangoardista.

1973. urtean, Bartzelonako eszenan sartu ziren. Capsa antzokiak hilabete askotan programatu zituen. José Lainez eta Concha Martínez Bartzelonako Institut del Teatreko irakasle-taldean sartu ziren. Gainera, José Lainez Departament de Dansa Contemporániako koordinatzailea izan zen denbora batez.

Handik urte batzuetara, Pablo Sarasate Musika Kontserbatorioko dantza-ataleko zuzendariak izan ziren Iruñean; han, Yauzkari dantza garaikideko taldea sortu zuten (1980), eta taldearekin hainbat sari irabazteaz gain, Europan zehar ibili ziren, agertokira lan probokatzaileak eta konprometituak eramanaz, ordura arte baletarekin gutxi loturiko musikak lagundutako dantzak eskainiaz.

José Lainezek eta Concha Martínezek azken lanak Iruñean egin zituzten, Piejuntoapie dantza-konpainiarekin. Becket 5 izeneko azken lana 2010ean estreinatu zuten Iruñako Gayarre Antzokian.